



# Heri Aldizkaria

# Artema

2000ko urria 61. alea



## Mineralogia eta Paleontologia Astean murgildurik

IRITZIZ-IRITZI: ANDONI SALAMERO  
ELKARRIZKETA: IÑAKI BASTARRIKA  
ERREPORTAIA: UNIBERTSITARI BERRIAK

# 206



HEG  ALDE AUTO



**PEUGEOT**  
ZERBITZU OFIZIALA

MUGITEGI, 27      URRETXU

☎ 943 72 51 37 / 943 72 58 64



58ko kintoek urte berean Isabel jatetxean egindako bazkariaren ostean atera zuten argozkia duzue ikusgai oraingo honetan. Goiko ilaran (ezkerretik eskubira): Vicente Narbaiza, Jose Turne, Luis Elgea, Javier Andueza, Benito Perez, Candiko Salaberria, Elias Arozena, Iñaki Arrieta, Bienvenido Valverde, Jose Ramon Ruiz, Juan ..., Marcos Castillo.

Beheko ilaran: Jose Calabor, Ramon Mendiola, Luis Gonzalez, Paquito Perez, Luis Martin, Ricardo Damian, Mariano Izagirre eta Arturo Garrido.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

## Beasain-Durango: EHren mozioak udaletxeetan

EHk mozioak aurkeztu behar ditu Urola Garaiko eta Deba Garaiko Udaletan Beasain-Durango korridoreko lan berriak lehenbailehen has daitezen eta Zumarraga eta Bergara artean egingo den errepide berriak zein Bergarako saihebidetarako lau bide izan ditzaten. Hau jakitera emateko Josean Alustiza Gipuzkoako Batzar Nagusietako kideak, Iñaki Idiakenez Euzko-Itsasoko alkateak eta Zumarraga eta Urretxuko zinegotziak diren Mikel Elgarresta eta Miren Josu Aranburuk prentsaurrekoa eskaini zuten urriaren 13an Zumarragako Amalur elkartearen.

Alustizak Beasain eta Alegi arteko bidea egin ostean berri txarrak besterik ez ditugula jaso esanez hasi zuen prentsaurrekoa "proiektuak atzerapenak izan ditu, autobidea izan behar zen Zumarraga eta Bergara bitarteko errepidea bide arrunta izango da, Udalen alegazioak atzera bota dituzte... Horrela, I. Errepide Planean 2000. urterako Alegi-Zumarraga zatia egina egon behar zen eta Zumarraga-Bergara 2002. urteko. II. Errepide Planaren aurrerapenean, berriz, 2004. urtera arte atzeratzen zen Alegi-Zumarraga eta 2009. urte arte Zumarraga-Bergara. Hori gutxi balitz Antton Jaimek epe hauek beteko diren zalantzan jarri du egunkarrietan egingadako adierazpenetan".

EHk Beasain-Durango ezinbestekotzat aldarrikatzeko dituen arrazoiak azaldu zituen jarraian Josean Alustizak. "Goierrik, Urola Garaiak eta Deba Garaiak jasaten duten trafikoari egokitutako komunikazio zuzena behar dute. Egun Zumarraga-Bergara errepideak eguneko 10.000 ibilgailuko trafikoa jasaten du. Bestalde, Gipuzkoan barrena mugimendu ikaragarria dago bailara desberdinen artean eta Beasain-Durango beharrezkoa da komunikazio hau garatzeko. Bukatzeko, nazional ikuspegitik aztertzen badugu,



Iñaki Idiakenez, Mikel Elgarresta, Josean Alustiza eta Miren Josu Aranburu Amaluraren eskaintako prentsaurrekoan.

Beasain-Durango Iruñea eta Bilbo lotuko dituen Euskal Herriko N-1 errepidearen zatia izan behar du".

Proiektuari ematen dioten garrantzia azaldu ondoren, Joseanek Foru Aldundiko 2000. urteko aurrekontuetan euren bultzadaxoa eman ziotela gogorazi zuen. "2000. urterako EAJ eta EAk 50 milioi soilik aurikusten zituzten partidaren, baina negoziaketa luzeen ostean ondorengo hiru urteetan Ormaiztegi-Zumarraga zatirako 4.400 milioi zuzentzea eta 2003 eta 2004 urteetan Deskargako tuneletarako 3000 milioi zuzentzea adostu genuen. Epean aurrerapena eta dirua bideratzea adostu genuen arren, ez genuen Zumarraga-Bergara errepidea 4 karriletakoa izatea lotu. Aitzaki ugari jarri zizkiguten eta guk Maltzaga-Urbina super-autopista transeuropearrarekin zerikusia zuen borondate falta susmatu genuen".

Joseanen iritziz Bergara-Zumarraga autobidea ez egiteko arrazoi nagusi eta bakarra dago: "Maltzaga-Urbinan peajea ordaindu beharko luketen

ibilgailu guztiak Zumarragatik joango litzazkieke Donostia aldera. Beraz, Foru Aldundiak Deba bailarako trafikoari soluziorik emango ez dion peajezko super-autopistaren alde egiten du apustu, eta apustu horretan Zumarraga eta Bergara arteko errepidea bi karriletakoa izatea sartzen da, benetazko beharren gainetik".

Prentsaurrekoa amaitzeko Joseanek bi mezu luzatu zituen, lehenengoa eskualdeko biztanleei: "Foru Aldundia Maltzaga-Urbina eta Beasain-Durango garatzerako orduan ez dabil bertako herritarren trafiko arazoak konpontzeko asmotan, Lisboa eta Ipar Europa lotzen duen sarearen adar bat gehiago erakitzen baizik. Ondorioz Gipuzkoako hainbat eskualderen arteko komunikazioa murriztu eta bailarako biztanleak urte askotako peajea ordaintzera behartuko ditu". Bestalde, bailarako alkate eta indar politiko eta sozialei Bergarako saihebidetarako eta Zumarraga-Bergara errepideak lau karril izan ditzaten borroka dezatela eskatu zien.

## Aparizio eta herrigunea arteko errepidearen konponketa

Foru Aldundiak Aparizioko errotonda eta Urretxuko herrigunea bitarteko errepidea konpontzeko 26 milioi eta erdiko aurrekontua onartu du eta lanen adjudikazioa abian jarri du. Lana egiteko eskareren epea zabalik da, azaro amaieran edo abendu hasieran esleituko da eta lanak otsaila amaieran hasi daitezke.

Aparizio eta herrigunea bitarteko

errepidea Naturgasek altxatu zuenetik egoera txarrean dago eta Udalak behin eta berriz enpresa honi errepidea konpontzeko eskatu dion arren ez du erantzunik jaso. Hau dela eta, Udalak zein herritarrek Aldundira jo zuten eta honek Naturgasi hilabeteko epea eman zion lanak hasiztzen. Epea igaro da eta Aldundiak ere Naturgasen erantzunik jaso ez duenez,

errepidea konpontzeko pausak ematea eta ondoren epaitegietan Naturgasi gastuen ardura har dezan eskatzea erabaki du.

Bestalde, Udala Mugitegiko sarrera ondoan beste errotonda bat jartzea aztertzen ari da autoak herrira polikiago sar daitezen eta bide batez, denbora aurreztu asmoz herrira sartzen diren gidariak sahiakbidetik joan daitezen.

## XVII. Buzkantza Lehiaketa izango da igande honetan

Igande honetan XVII. Buzkantza Lehiaketa, Jose Maria Busca Isusiren omenezko XV.a, izango da Zumarragako Euskadi enparantzan. Betidanik Santa Lutzi egunean ospatu den lehiaketa aurten hirugarren-  
goz aurreratu dute antolatzaileek merezi duen sona emateko asmoz. Iaz ere Buzkantza Lehiaketa azaroko lehen igandean ospatu zen, izan ere Santa Lutzi eguneko aurreko asteburuetan ekitaldi dexente antolatu baitira, eguraldia okerragoa baita eta feria gehiago izaten baitira.

Partehartzaileek igandean goizeko 11ak baino lehen lehiaketarako bi kilo eta erakusteko bost kilo buzkantza aurkeztu beharko dituzte eta eguerdiko ordu-bata inguruan Aitor Gabilondo, Zumarragako alkatea, buru izango duen epaimahaiak saridunen izenak jakitera emango ditu. Aurten irabazleak 50.000 pezeta, saria eta prentsan ira-



Inaki Campos ormaiztegiarrak irabazi zuen iazko buzkantza lehiaketa.

garkia eramango ditu, bigarrenak 50.000 pezeta eta aurkezpen onena egiten duenak 30.000 pezeta.

Baina Busca Isusiren omenezko hau ez da lehiaketa hutsa, antolatzaileen

helburua Euskadi enparantzara hurbiltzen direnei buzkantzaren ekoizpena ezagutaraztea ere baita. Horretarako argibide-taulak jarriko dira enparantzan eta foiletoak banatuko dira.

## Erromesaldia Antiguara

Jesukristoren jaiotzaren 2000. urteurrena dela eta, Jubileu-urtea dugu aurtengoa. Jubileua irabazteko eliztarrek zenbait baldintza bete behar dituzte: sakramentu aitortza, aukeratutako santutegi batera erromesaldia, erromesaldi lekuan otoi-tza eta beharra duen bati elkartasuna agertzea. Gotzaitzak jubileua irabazteko santutegi batzuk hautatu ditu eta hauen artean Antiguakoa dago.

Hori dela eta, urriaren 7an Legazpi, Urretxu eta Zumarragako mila eliztar inguruk Antiguara erromesaldia egin zuten. Goizeko 9etan elkartu ziren Zumarragako parrokiak eta Juan Mari Uriarte gotzaiak lagundurik Antiguara igo ziren. Bidea otoi eginez eta abesten igo zuten. Antiguara heldu zirenean, bertako zelaiunean kontzientzi azterketa egin zuten eta ermita barruan aitortza. Hamar apaizetik gora izan ziren Jose Maria Uriarterekin batera eliztarrei banan-banako absoluzioa ematen.



Mila erromes inguruk egin zuten parrokiatik Antiguarako bidea. Argazkia: Aresti

## Horratx! aisialdi taldearen lehen pausak

Zintzo-Mntzok eta Urretxu eta Zumarragako begirale talde batek Horratx! izeneko aisialdi taldea sortu dute. Azken aste hauetan aisialdi taldean parte hartzeko gonbidapena luzatu diete 10 eta 11 urtetako bi herrietako haurrei eta joan zen larunbatean egin zuen bere aurkezpena aisialdi talde berriak. Areizaga-Kalebarren enparantzan play-back jaialdia eta txokolatada izan zuten hurrek eta ondoren parte hartzaileen artean Pizza Sprinten afariak zozketatu ziren.

Zintzo-Mintzoren filosofia herrian eskaintzen diren zerbitzuak euskaldundu eta ez direnak euskaraz eskaintzea izanik, euskaltzale taldeak aspalditik ikusi du haurrei eta gazteei zerbaitek eskaintzeko beharra. Uda aurretik lehenago ere begirale lanetan arituak diren bi herrietako gazte talde batekin harremanetan jarri ziren eta hauek ere euskaraz lan egingo zuen aisialdi taldea sortzearen beharra somatzen zutenenez, elkarlanean,

eman beharreko pausak zehazten hasi ziren.

Lau dira aisialdi talde berriak bete nahi dituen helburu nagusiak: haurrentzat aisialdi taldea esperientzia alai eta gustukoa izatea, partaideek euskaraz aritzea eta euskaldun kontzientzia garatuko duen euskal kultura eta ohituren hurbilketa bideratzea, sortuko diren harremanen eta burutuko diren ekintzen bidez haurren asetasun beharrak ziurtatzea eta haurren eguneroko bizitzan eragina duten jokabideak bultzatzea.

Helburu hauek lortzeko 10 eta 11 urtetako haurrak larunbatero 4etatik 6etara Pasiotarren lokaletan (Ikastola alboan) elkartuko dira eta bertan ekintza ezberdinak burutuko dituzte. Bestalde, hilean behin haurrentzat joan zen larunbatean ospatu zenaren antzerako jaialdi bereziak antolatuko dituzte begiraleek. Hona hemen azaroa eta abendurako egitaraua:

Azaroak 4: Aurkezpenak eta ezagutza jokuak (zapia, adi egon, pelota beroa, Noeren itsasontzia, oilo itsuak eta buruhaustek).

Azaroak 11: Ginkana.

Azaroak 18: Eskulana (lanpara).

Azaroak 25: Hainbat musika joku (erratz dantza, patata dantza, arbelera korrika, aulki joko kooperatiboa eta giltzapertuak).

Abenduak 2: Gabonetako krismak egin.

Abenduak 9: Olinpiadak

Abenduak 16: Eskulana (Gabonetako apaingarriak)

Abenduak 23: Gabon festa (zuhaitzaren apainketa, txokolatada, eta abar).

## Eraso faxisten aurkako manifestazioa

Urriaren lehen herriko hiru gazteei aspalditik liskarretan dabilzan bi lagunek emandako jipoiak zeresana eman du azken hilabete honetan. Larunbata gaueko gertaeraren osteko asteen arazoari irtenbidea bilatzeko egin zen bilerara deialdia luzatu zitzaizen herritarrei eta leku faltagatik bilera Kultur Etxetik Ederrena pilotalekura eraman izanak arazoak herritarrengan sortu duen kezka agerian utzi zuen. Bertan herriko gazte koadrila ugari eta bi erasotzaileengatik kaltetutako beste hainbat lagun bildu ziren. Luze eztabaidatu ondoren bildutakoek, bi erasotzaileak zigortuak izan ditezen legeak eskaintzen dituen aukera eskaxak ikusirik, urriaren 7an manifestazioa egitea erabaki zuten. Bi herrietako buzoietan gertatutakoaren berri ematen zuen eta manifestaziora gonbitea luzatzen zuen idatzia banatu zen eta urriaren 7an "Eraso faxistarik ez" leloa zuen pankartaren atzean 1.500 herritar inguruk bi herrietako kaleak zeharkatu zituzten.


## Udazkeneko XV. Musika Zikloa

Duela 15 urte Goiargi Abesbatzako partaideen ekimenez sortu zen Udazkeneko Musika Zikloaren hamabosgarren ekitaldiari amaiera emango dio igande honetan Hondarribiako Xatz Abesbatzak arratsaldeko 7etatik aurrera. Aurtengo zikloari Goiargi eta Kimets-Goiargi herriko abesbatzek eman zioten hasiera urriaren 15ean eta hauen ondoren Orkoien San Migel Abesbatza, Hegoafrikako Bloemfontein talde korala eta Letoniako Dzintars abesbatza aritu dira.

Udazkeneko Musika Zikloa bere sorreraz geroztik pixkanaka hazten joan da eta bide honi jarraituz aurtengo maila bikaineko abesbatzak ditugu entzungai Tourseko San Martin parrokiaren Hegoafrika eta Letoniatik etorritako bi abesbatzak, esaterako, Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa ospetsuan parte hartuak dira. Oraindik Urretxuko parrokiara hurbildu ez bazarete, igande honetan duzue primerako musika koralez gozatzeko azken aukera Hondarribiako Xatz Abesbatzaren eskutik.

**Ferretería**

**BR**AVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA  
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

## Merkataritza Euskalduntzeko Plana

# Korta: Eitzako jatetxea



Korta jatetxea Eitza auzoari lotua dago ezinbestean. Asteazken zehar jatetxeaz gain, bigarren etxea ere bada Eitzako askorentzat.

Asteburuetan berriz, Kortako sukaldeko jakiak dastatzera joandakoek jantokia betetzen dute. Asko plater zehatz bat jatera joaten dira: untzia, txipirotiak... Korta jatetxeko kartan ez dago plater arrarorik, sukaldariaren esku finek era tradizionalan prestatutako platerak baizik. Hori dela eta, babarrunjanak, koadrilako afariak eta antzerako ugari izaten dira jatetxe honetan.


Azken hiru urte hauetan Mari Carmen eta Mari Josek dute Kortako arduraren. Tarte honetan berrikuntza batzuk egin dituzte: lokala txukundu, euskararen presentzia areagotu... Azken honetan Zintzo-Mintzorekin batera ari dira lanean eta egindako ahaleginen emaitzak batez ere bezeroekiko harreman idatzian nabari dira: Kartan, fakturan, letreroetan...

Etxeko sukalde goxoa eta giro atsegina dira jatetxe honen aurkezpenik argiena. Hortik aurrerakoa ezagutzeko gonbidatuta zaudete.

### Kortako sagar-erreak:

Osagaiak:  
8 Errezil-sagar haundi  
50 gr. gurin  
100 gr. azukre  
Ezti basokada bat

Sagarrak garbitu. Goiko zatia eta mutxikina kendu ondoren labeko bandejan jarri. Mutxikinaren hutsunea gurina eta azukre goilarakadaxo batekin bete. Bandejan ur piska bat jarri eta tenperatura ertainean 40-60 minututan labean erretzen eduki. Sagarrak mahaira atera aurretik, ezta maria bainuan epeldu eta sagarrei gainetik bota.



**RENEDO** argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682 ☎ 722292



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**ARKYPE**  
**TABERNA**



**ALTZARIAK**

**MERKA-UROLA**

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
**URRETXU**



**URRETXU**

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68



Andoni Salamero

## Presaren gazi-gezak

Gaurko egunean, bada egindako gauzak nolanahi aurkeztu behar direla pentsatzen duenik. Presaren morroi garen garai hauetan, axolagabekeriaren ondorioz, agudo egindako zenbat lan ez ote diogu hurkoari eman ziria sartu nahiz. Baina, noski, lagun hurkoa ezezagun edo ezagun dugun emakume edo gizon hori, ez da ergela, badaki lasterreko lan horiek alferrikako emaitzaren arrasto direla, gaizki landutako lur galdu baten ale heldu gabeak. Lurra emankortzen ez duen pertsonak, azkar izango ditu adiskide: mesfidantza eta sinesgaiztasuna; adiskide zitalak eta gaitz berrien eragileak eta jakina, gizarte osasuntsu, batu eta ireki bat sortzeko izan daitezkeen etsairik porrokatuenak.


Mobilak kurrinka, telefonoak irrintzika, faxak orri jauzika, ordenagailuak, klikada bakoitzean, gure bizkarzama areagotzen kili-kilika, jendea lasterketa estuan kalean, etxean, lanean, errekor berria hausten arituko balitz edo. Zein helburu edo asmo zorok eragiten du gizakia ezbeharreko behar horretara? Nork sartu edo sarrarazten gaitu gurea ez den soka honetan? Aitzakia ez da bestearengan aurkitu behar, sarri hau egiten den arren, gu gara errudun bakarrak eta pentsatzen jarriko bagina une batez, era deseroso eta behargabeen burutzen ditugun hainbat eta hainbat eginkizun, umore desegokiz egiten dugulako iruditzen zait. Bestela, oroit dezagun zenbat astolan egin izan dugun askotan, hasiera batetik antolaketa egokia eta zehaztu beharreko pausoak zeintzuk diren argitu ez ditugulako.

Ez gara makinak, ez, baina, makina bihurtzen

dugu geure gorputza eta makina bati eskatzen zaion adina eskatzen ari gaitzaizkio egunero, geuk geure buruoi eta horra hor, geure lehen akatsa. Neurrigabeko zurrunbilan geure burua noraezean uzten badugu itolarria eta ezinegona izango ditugu bizitzaren gidari. Geure bihotzak hori baino estimu handiagorik ez al du merezi? Jar zaitez une batean lagun, zure inguruari so, galde egiozu zeure buruari zenbat momentu gozo eta benetako eskaintzen diozun egunean zehar zeure barruari, gelditu zure eguneroko jarduna, begiratu iezaiezu zelaietan edo herriko parkeetan udazken garaian, lotsez biluzten doazen zuhaitzei; entzun egun lainotsuetan, zure barne lehor hori freskatu eta esnatzearren, zerutik lurrera erortzen doazen ttanttan mardul eta pottolo horiek; usaindu azoketan, ganbaretan, zabalitzen den janari lurrin gozoa, ama-lurraren eskaintza eman-kor hori; ikutu haur jaiotze berri baten azala, zure alabarena, semearena edo ilobarena; dastatu zaren guztia lehenik, zeure baitan begiratu, errespetuz eta tentu handiz eta gero izatearekin, izadiarekin eta inguruko gizaki guztiekin bat eginez.

Orain, esan iezaidazu zinez, bizirik egote hutsa aski al duzu? Barrutik, hilik dagoen biziduntzat duzu zeure burua ala erne eta argi, biziak ematen dizun argi pindarra, gozo eta samur onartzen eta iraultzen duzun gizakia zaitut?

Udazken honen atetik, adiskide, gogoan erabili esandako hau eta erabakitzen duzuna behintzat, egin ezazu presa handirik gabe, lasai, gozo eta ez nolanahi. Bihotzak bizi-biziki eskertuko dizu.



## BILINTX LIBURUDENDA

**EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.**

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



## Zumarragan gaizki aparkatutako autoei isunak jartzen hasi dira. Neurria beharrezkoa zela uste al duzu?



### Jose Luis Garmendia

Ez nago erabakiarekin ados. Bi herriotan aparkatzeko arazo haundiak daude eta zenbait kasutan gaizki aparkatzea ezinbestekoa dela iruditzen zait.



### Ainhoa Arrieta

Neurri egokia iruditzen zait eta Urretxun ere hori egin beharko litzateke. Batez ere, Labeaga kalean bi iladatan aparkatzen dutenek trafiko arazoak sortzen dituztelako.




### "Potas"

Ez dut uste neurri egokia denik, isunak jartzen hasi aurretik aparkaleku gehiago jarri behar dira arazoa konpontzeko. Hala ere, egia da gidari batzuk pasa egiten direla.




### Miren Josu Aranburu

Zirkulazio arazoak eta aparkaleku gutxi daude. Urretxun behintzat multak jartzen hasi aurretik arazo hauek konpondu beharko lirateke. Dena den, egia da gidari batzuk pasa egiten direla.



### Dionisio Aristegi

Askotan aparkalekua aurkitzeko arazoak izaten dira eta jendeak gaizki aparkatzen du. Lehengo egunean anbulantzia bat ezin izan zen Jubilatuen Egoitza aurrera sartu. Normala iruditzen zait isunak jartzea.



### David Callejo

Kotxerik ez dudanez, ez dakit egoera nola dagoen. Baina asteburuetan batez ere arazoak daudela eta jendeak edozein lekutan aparkatzen duela ikusten da.

# BIONA

## AROTEGIA

### Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa**

fundazioa  
fundación

# EDURNE

## JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



# Keros

Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

# Iñaki Bastarrika

“Ene aberri ttikia (barne begietan)” liburuaren idazlea

## “Liburua Geltokietako auzoan jaio den baten kronika sentimentala da”



Iñaki, Mikel, Antxiñe eta Peio liburuaren aurkezpen ekitaldian.

Iñaki Bastarrika urretxuarrak “Ene aberri ttikia *barne begietan*” izenburua duen bere lehenengo liburua kaleratu du. Iñaki Geltokietako auzoan bizi da eta liburuak inguru honek gogora ekartzen dizkion sentsazio eta bizipenak zein bertan izandako hainbat gertakari historiko biltzen ditu. Geltokietako auzoa gure bizitzarekin hain lotua dagoen ingurua izanik, Iñakiren liburuak, bere barne hegaldia eskaintzeaz gain, geure barne hegaldia hasi eta Geltokien inguruko txoko ezberdinetan bizitakoak gogora ekarri eta sentitzeko gozamina eskaintzen digu.

Iñakik urriaren 6an aurkeztu zuen liburua Legazpi

Dorretxean eta bertan berarekin izan ziren libururako Geltokien auzoan jazo diren ipuin bana idatzi duten Antxiñe Mendizabal eta Mikel Aramendi. Antxiñe eta Mikel ez dira libururako euren lankidetzak eskaini duten herritar bakarrak: Concetta Provanzak liburuaren azala jantzi eta barne egitura antolatu du eta ikastolako haurrek liburu barruko marrazkiak egin dituzte. Aurkezpen ekitaldian Peio Biain, Mikel Aramendi, Antxiñe Mendizabal eta Iñaki bera mintzatu ziren eta Andoni Salamerok poesia irakurketa eta kantaldia eskaini zuen Zuhaitzaren Soñua taldeko txalapartarien laguntzaz.

### Nondik nora sortu zen liburua?

Argi nuen noizbait liburuaren bat idaztekoan jaio eta bizi naizen inguruko bizipenak bilduko zituela. Gurasoengandik jaiotzen gara, lagun zehatz batzuk ditugu, leku batean bizi gara... zor batzuk ditugu eta zor hauek aitortuz liburuak bat egitea erabaki nuen. Bestalde, beste jende askok bezala, Geltokien inguruko hainbat informazio jasota nituen eta hauek ere liburuan

daude, baina aurkezpenean esan nuen bezala hau ez da historia liburu bat. Nere gogoeta eta bizipenekin batera sartu ditut kontakizunari laguntzeko, baina aspertu ere egin gabe. Liburua geltokietako auzoan jaio den baten kronika sentimentala da. Kroniketan garaian-garaiko bizimodua historia liburuetan baino hobeto azaltzen dira, baita eleberrietan ere, harremanak, elkarriketak... pertsonak azaltzen baitira.

### Aurkezpenean ere eguneroko istorio “txikiak” atsegin dituzula esan zenuen...

Maila apala interesatzen zait eta jendeak, nik egin dudana moduan, inguruan sortzen diren istorio “txikiak” jasotzea gustatuko litzaidake. Askotan istorio garrantzitsuak hilketa handiak, estatu mailako gauzak direla... pentsatzeko joera dugu, baina inguruko jendearen bizipenak sekulakoak dira aztertzen hasiz gero eta

hauei merezi duten garrantzia ematen ez badiegu galdu egingo dira. Edozein herri-tan mila istorio interesgarri daude eta hauekin literatura eginez gero, beste istorioek bezainbeste balio dute. Zentzu hone-tan eskertzekoa da duela gutxi omendu duten Antonio Zavalaren lana. Izan ere, katedradunak eta antzerakoak beste gai batzuetaz arduratzen dira eta maila hone-tan lan egiten duen jendea beharrezkoa da.

### Zerk bultzatzen du idazle bat bere pol-tsikotik argitalpena ordaintzera?

Lanik handiena materiala biltzen eman nuen eta ez nuen indar gehiegirik atez-ate diru eske joateko. Liburua atera behar nuela argi nuen eta ez nuen inongo buruhausterik nahi alde horretatik. Bestalde, herri maila-ko gai bat ez da "saltzeko" hain erraza eta gainera nik oso argi dut gure bizipenak ez direla inon lehiatu behar. Ofizioko bat-zuek esan didate hau bizitzan behin egiten dela, baina argital-penaren ardura hartu dudan arren, liburua aurrera ateratzeko lagunarte ona izan dudala esan beharra dut. Bai liburua maketatzeko, bai zuzenketak egiteko, marrazkiak eskuratzeko... honi guztiari esker gau-zak errazago ateratzen dira.

### Nolatan sortu zen Antxiñeren eta Mikelen lankidetzak?

Hasieran jende gehiagori ere eskaini nion lankidetzak, liburua bi atal garbitan bereizteko asmoz: batean nire ikus-pegia eta bestean lagune-na. Baina askok lan kon-tuak direla eta, ahalegina egin arren ezin izan dute euren lana bukatu. Antxiñek eta Mikelek lana egiteko modua izan dute eta euren lanak libu-ruan dira.

### "Hauts urdina" izenpe-an atera duzu liburua, zein da honen esanahia?


Liburuxka ateratzeko derrigorrez jarri

beharra dago nork argitaratzen duen eta izen hau hautatu nuen. Ez dugo momentuz izen honen pean beste lan batzuk kalera-tzeko asmorik. Izeneren esanahiari dago-kionez, hauts urdina udazkenean hostoen gainean pausatzen den hauts bat da. Anoeta gaineko baserri batean bizi zen Bixente Arraterekin berriketan ginela ent-zun nuen lehenengo aldiz eta hasieratik gustatu zitzaidan.

### Irakurleek zer esan dizute?

Nirekin hitz egin dutenek behin-tzat gustura irakurri dutela esan didate,

**"Irakurleari ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Idazleak du izena, baina irakurtzea ere ofizio bat da ia: lan asko, ordu asko... eskatzen du"**



Andoni Salamerok zenbait poesia irakurri eta kantatu zituen.

baina lana egin ondoren gustura gelditu naiz eta hortik aurrerakoek ez naute gehie-gi kezkatzen. Nahiago dut, noski, jendeak gustatu zaiola esatea; baina lan honek laminazioan zortzi ordu sartzen dutenen balio berbera du eta haiek etxera heltzean ez dute paparrean dominarik zintzilikatzen eta nire asmoa ere ez da hori.

### Txikitatik al duzu idazteko zaletasuna?

Artikulu bat edo beste lehenago ere idatzi dut, baina lehenengo lan mami-tsua hau da. Ez dut idatzitako beste lanik gorderik, lan hau nuen buruan, poliki-poli-ki egiteko modua izan dut eta momentuz hor bukatzen dira nire idazle asmoak. Idazteko zaletasuna baino gehiago irakurtzekoa izan dut betidanik. Nik uste irakurleari ez zaiola merezi duen garrantzia ematen. Idazleak du izena, baina irakur-tzea ere ofizio bat da ia: lan asko, ordu asko... eskatzen du. Nik argi dut zerbait izatekotan irakurlea naizela. Baina norbe-raren ikuspuntua beste baten idatzietan islatua ikustea zaila denez, zaletasunak bul-tzatuta, neurea idazteko ahalegintxo bat egin dut.

### Zure burua irakurletzat duzu, zer irakurtzen duzu batez ere?

Ez nuke esango sekula-ko irakurlea naizenik, baina bai gustuz irakur-tzen dudala. Sanchez-Ostizen, Antoñanaren, Peio Lizarralde herritarra-ren... lanak oso gustukoak ditut, baina denetik irakurtzen dut. Liburu bakoitzetik zer edo zer zehatza gustatzen zait, baina bat aipatzekotan Pedro Berraondok itzuli-tako "Don Kijote Mantxako" aipatuko nuke. Liburu horretatik asko ikasi dut, batez ere hizkuntza aldetik. Literarioa den arren, aldi berean oso herrikoia da eta belarritik erraz sartzen dena. Niri hori beti intere-satu zait: hizkuntza lan-dua, baina herriak erraz ulertuko duena izatea.

# TXIKIMOTZ

## “Ondo pasatu eta ikasi asmoz hasi gara eskola kirolean”



Markel, Asier, Ane Miren, Pablo, Eider, Aimar, Eneko, Ioritz, Heber, Xabi eta Jone lehen hezkuntzako 3. maila ikasten ari dira ikastolan. Hala izanik, aurten dute lehenengoz eskola kirolean aritzeko aukera eta beraiek ez dute aukera hau galdu nahi izan. Kirola atsegin dutenez, ondo pasatu eta ikasteko asmoz, izena ematea erabaki zuten. Gabonak bitartean futboleant arituko dira eta ondoren beste kirol batzuk egingo dituzte: eskubaloia eta saskibaloia esaterako. Duela aste batzuk hasi ziren entrenatzen, astelehen eta asteazkenetan, eta oso gustura daude Rebeka entrenatzailearekin. Euren esanetan “oso entrenatzaile ona da eta gainera entrenatzaile guztien artean txintxoena

da”. Ea beraiek ere entrenatzailearekin horren txin-txoak ziren galdetu genien eta baietz esan ziguten, baina guk ez genuke hori esango.

Duela bi aste jokatu zuten lehenengo partida La Sallen bertako taldearen aurka eta bosna berdindu zuten. Larunbata hartan egun guztian ez zion euria egiteari utzi eta bi taldeetako lagunek blai-blai eginda bukatu zuten partida. Egiten zuen hotza kontuan izanik, ez da harritzekoa hainbeste gol sartu izana, etengabe korrika egitea baitzen berotzeko modu bakarra. Hala ere, oso gustura aritu ziren, egunero ez baitute gurasoen baimenaz euripean jolasteko aukerarik. Partida jokatzen ari ziren bitartean gurasoak begira zituzten eta amaitu ondoren oso ondo jokatu zutela esan omen zieten.

Esan bezala, Gabonak bitartean futboleant arituko dira eta ondoren beste kirol batzuk egingo dituzte. Taldeko partaide gehienek fubola dute gustukoan, baina beste kirolak ere atsegin dituztela esan ziguten. Bestalde, beraiei aukeratzen utziko baliete eskia egitea ere aukeratuko omen lukete. Dena den, kirola egiteaz gain, ikustea ere atsegin dute. Futbola jarraitzen dutela esan ziguten eta gehienak Errealekoak diren arren, Bartzelonaren eta Athletic-en zaleturen bat ere badute.

# TXIKIMOTZ

dirigimendu

darametzagu eta ikasgai  
bat amara dugu jak  
nairred instiat  
giza zientziak-espres



## MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



**HAR GOR**  
ILEAPAINDEGI MIXTOA  
Nekolalde, 3 baxua  
☎ 943 72 44 42



**HARGOR**  
Artisautza - arropak - opariak  
Nekolalde, 1  
☎ 943 72 56 58



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎ 943 726274  
ZUMARRAGA



# Unibertsitari berrien gora-beherak

Urteroko legez iraila heltzarekin ikasturte berriari hasiera eman zitzaion eta azken aste hauetan ikasleak egunerokotasunean murgilduak daude jada. Dena den, zenbait ikaslerentzat aurtengo ikasturte hasiera oso berezia da, euren ikasketen azken etapa izango den unibertsitatean hasi baitira. Hauetako batzuk urrutira joan dira ikastera, besteak herritik gertuago izango dira, batzuk pisua edo erresiden-tzian biziko dira, besteak etxera itzuliko dira egunero... Unibertsitari berriek zein aukeraketa egin duten eta lehen aste hauek nola bizi dituzten jakiteko Unai Usabiaga, Ane Antia, Itziar Ormategi, Mikel Igarza eta Maialen Baez gazteekin hitz egin dugu.



Anek, Mikelek, Itziarrek, Unaik eta Maialenek gustura igaro dituzte lehen egunak unibertsitatean.

**Itziar Ormategi** argi zuen medikuntza ikasi nahi zuela, hori dela eta, Leioan ikasterik ez zuenez Bartzelona aldera abiatu da. "Bartzelonara joan beharra nuela jakin nuenean oso ondo hartu nuen, dena aldatu eta bizitza berri bat hasiteko gogoia bainuen, baina joateko eguna heldu ahala damutzen hasi nintzen, beti oso etxezuloa izan bainaiz". Dena den, berehala moldatu da eta oso gustura dago unibertsitateak bere ikasleei alokatzen dien pisuetako batean lau ikasle kataluniarrekin batera, "etxeko lan guztiak guk egiten ditugu eta erropa garbitzeko zerbitzu bat dago-

en arren, oso garestia ateratzen denez, eskuz garbitzen dut. Etxeko lanen banaketa oso ondo antolatua dugu, baina pasta eta arroza jateaz nazkatzen hasia nago..." Asteburuetan pisuan bakarrik geratzeara da okerren daramana eta printzipioz etxera zubiak dauden asteetan itzultzeko asmoa du, astero bidaia egitea oso garestia bailitzateke eta denbora asko galduko bailuke. Kataluniara joan denez eta gainera ikasgai batzuk katalanez dituzenez, hizkuntza hau ikasten ari da. Bere ustez "jendeak katalana ikastea oso erraza dela esaten dizu, baina gaztekeraz ere nahiko trakets molda-

tzen naizenez, lehenengo egunetan ia tutik ere ez nuen ulertzen. Dena den, pixkanaka ikasten ari naiz. Pisukideek nirekin gaztekeraz hitz egiten dute, baina hemendik gutxira beraiekin katalanez hitz egin ahal izatea espero dut". Itziar etxetik hain urrunera joan denez ikastera, hasieran bakar xamar aurkitzen zen "Unibertsitateera heldu nintzenean ez nuen inor ezagutzen eta lehen egunetan nahiko gaizki pasa nuen. Gainera nobatadak egin zizkiguten eta ez zen batere atsegina izan". Ikasketei dagokienez, ikasturtea nahiko gogor hasi dutela uste du Itziarrek "hiru aste besterik ez

daramatzagu eta ikasgai bat amaitu dugu jada”.

**Mikel Igarza** giza zientziak-enpresa ikasketak egitera joan da Eskoriatzara eta berehala moldatu da egoera berri-  
ra: “ikaskideak elkar eza-  
gutzea gehiago kostako  
zitzaigula uste nuen,  
baina lehenengo egunetik  
klaseko asko elkar eza-  
gutzen hasi gara eta  
hurrengo asteetarako bi  
afari antolatu ditugu  
jada”. Ikasketei dagokie-  
nez, Itziarrek ez bezala,  
nahiko lasai hasi dituztela  
uste du “lehen aste haue-  
tan ezer gutxi egin dugu.  
Zenbait ikasgaitan ez  
dakigu oraindik zehazki  
ikasturtea nondik nora  
joango den. Hala ere,  
badakit ikasturteak aurrera egin hala  
gauzak zailago jarriko dizkigutela”.  
Mikel lehenengo aste hauetan autobu-  
sez joan da Eskoriatzara, baina orain  
pisu bat alokatu du beste bi lagunekin  
“Hasieratik pisura joan nahi nuen eta  
gurasoak ados zeudela zirudien, baina  
egunero Eskoriatzara zihoan autobusa  
zegoela jakin zutenean iritiz aldatu  
zuten. Hori dela eta, autobusez joaten  
hasi nintzen, baina gero eta gogorragoa  
egiten ari zitzaidan, hamaika eta erdietan  
bazkaldu beharra bainuen. Azkenean gura-  
soek pisura joaten uztea lortu dut.  
Momentuz gustura nago, ez damutzea  
espero dut. Pisuan hiru lagun egongo gara  
eta elkarbizitzak bere komeriak izan ohi  
dituen arren, gure artean arazorik ez egotea  
espero dut. Janaria prestatzen ikasteko  
asmoa dut eta printzipioz erropa bertan  
garbitzeko asmoa ere bai. Izan ere, pisura  
joatearen arrazoietakoa bat nire kabuz bizi-  
tzeko gai naizen ikustea da”.

**Maialen Baez** ere Eskoriatzan  
ikasten ari da, magisteritza hain zuzen ere,  
baina bera egunero autobusez joaten da  
klasera eta hala jarraitzeko asmoa du  
“hasieran oso gogorra egiten zitzaidan  
egunero goizeko betan jaikitzea, baina pix-  
kanaka ohitu egiten zara eta orain bidaia  
lotan egiten dut. Ez dut pisua hartzeko  
beharrik ikusten eta gainera Eskoriatza ez  
da bertan bizitzeko bereziki erakargarria”.  
Unibertsitatera joatean giro berezia topa-



Egunero autobusez joatea hautatu dutenek,  
eguna argitu aurretik irtetzen dira unibertsitatera.

## Gehienek lehenengoz etxetik kanpo bizitzeko aprobetxatu nahi dituzte urte hauek

tzea espero zuen, baina Eskoriatzan ez  
omen dago halakorik: “Eskoriatzan magis-  
teritzako eta giza zientziak-enpresako ikas-  
leak soilik gaude eta beraiek klaseak arra-  
tsaldez dituztenez eta guk goizez, oso ikas-  
le gutxi elkartzen gara bertan eta ez dago  
unibertsitate girorik”. Eskoriatzan uniber-  
sitate girorik ez dagoen arren, Maialen eta  
bere ikaskideek hasberriei egiten zaien  
iseka jasan behar izan dute “mahai batzue-  
tara igotzera behartu gintuzten eta gero  
beste mailatakoek arroza eta makarroiak  
botatzen hasi ziren. Beste behin 3. mailako  
ikasle batek praktika moduan guri klaseak  
eman behar zizkigula esan zigun. Hau  
itsuei buruz hitz egiten hasi zen eta  
berauek nola sentitzen diren jakiteko zapi  
bat begietan jarri eta pasilora atera gintuz-  
ten. Bertan beste mailatakoak genituen  
zain parre batean”.

**Unai Usabiagak** enpresa-ikaske-  
tak hasi ditu Donostiako Deustuko  
Unibertsitatean. Itziar Bartzelonara joan  
zenean bezala, klasera iristean ez zuen inor

ezagutzen, “heldu nitzenean bakoitzak  
bere taldetxoa zuen eta nahiko bakarrik  
sentitzen nintzen. Baina kurtsoa hasi  
aurretik ikastaro bat egin genuen eta  
bertan taldeko lan ugari egin genituen  
lagunak egiteko aukera bikaina izan  
zen”. Unai oraingoz trenez joaten da  
egunero klasera baina bere asmoa pisu  
batera joatea da “gurasoei pisura joan  
nahi nuela esan nien baina ez zidaten  
utzi; nota onak ateratzen saiatuko naiz,  
eta horrela pisu batera joaten uzten didaten.  
Oraingoz egunero etxera itzultzen naize-  
nez, herrian bertan gidatzeko baimena ate-  
ratzeko aprobetxatzen ari naiz”.

**Ane Antia** injeniaritza ikasten ari  
da Arrasaten eta egunero autobusez joaten  
da bertara Maialenekin batera. “Praktikak  
urtarrilean hasiko nituela uste nuenez, nire  
asmoa kurtso hasieran bertako girora mol-  
datu eta urtarrilean pisua hartzea zen.  
Baina praktikak orain hasi ditugu eta auto-  
busez joatea nahiko neketsua egiten ari zait  
etxera oso berandu eta ezertarako gogorik  
gabe iristen bainaiz. Gurasoak pisua har-  
tzearekin ados zeuden hasieratik eta ez  
dakit ziur azkenean zer egingo dudan”.  
Unibertsitatean ikasleen artean adiskidetz  
giroa berehala sortzen zela esan zioten  
arren, bere klasean behintzat ez omen da  
halakorik gertatu: “bakoitza bere ezagune-  
kin egoten da eta talde itxiak egin dira.  
Eskerrak Urretxu eta Zumarragatik ere  
gutxi batzuk joan garen eta gure taldetxoa  
osatu ahal izan dugun”.

# Javier Aguado Goñi, zaletasuna ogibide bihurturik

Joan den larunbatean izandako ibilaldi mineralogikoak Mineralogia eta Paleontologiari buruzko XIII. Asteari hasiera eman zion. Aurtengo ibilaldian zaletuak Nafarroan izan ziren hainbat adituren laguntzarekin mineral aleak bilatu eta aurkitutakoak sailkatzen. Astelehen eta asteartean eskola umeek Ernesto Santidrianek eskainitako "Historiaurreko gizakiaren agerpena Euskal Herrian" izenburuko ikusentzunezkoaz gozatzeko aukera izan dute. Erakusketei dagokienez, Kultur Etxeko mineral eta fosilen museoaz gain, hainbat erakusketa monografiko ditugu ikusgai igandera arte. Kultur Etxean Eugiko meategiko magnesitena, meteoritona eta geologia gai nagusizat dituzten seiluen erakusketa ditugu eta Juan de Lizarazu erakusgelan, berriz, "Amalur"

izenpean naturaren bitxikeriak biltzen dituena. Gaur bertan, Mineral, Fosil eta Harribitxien XIII. Feria eta haurrentzako Mineralogia eta Paleontologia parkea zabalduko dira. Esan bezala, aurtengo hamairugarrenez ospatzen ari da Mineral eta paleontologi astea eta mundu hau herritarrei ezagutarazteko asmoz jaio zena alor honetan Euskal Herrian izaten den feria nagusienetakoa bilakatu da. Honetan zerikusi haundia izan du bere aitarekin batera bultzatzaile nagusia izan zen Javier Aguado Goñik, zeinek aitarendik jaso zuen zaletasuna ogibide bihurtu eta mineralen mundua ezagutzera emateko asmoz lan eskerga egin duen. Mineral asteaz zein bere zaletasunaz berri zabalagoa izateko asmoz, berarekin hitz egiten jardun gara.

## Nolatan hasi zineten familian zaletasun hau lantzen?

Aitak fundizio tailer bat zuen Gabirian eta egun batean, hura saldu eta betidanik gustukoa izan zuen bildumazaletasuna jorratzea erabaki zuen. Zigilu eta txanpon bildumak ere bazituen arren, mineralak eta fosilak biltze-ari ekin zion batik bat. Ceutan bizi zen urrestilar batek Marrucosen mineral merkeak eros zitezkeela esan zion eta bertara joaten hasi zen. Bidaia hauetatik ekarritakoak Bilboko Plaza Berrian beste leku batzuetatik ekarritakoeekin trukatzeko zituen eta pixkanaka bilduma polita osatu zuen. Bilduma hau egun Kultur Etxeko museoan dago nik neuk bildutako beste hainbat mineral eta fosilekin batera. Urretxuko museoak bilduma polita du, baina aitak ez zituen Euskal Herriko mineral gehiegi bildu eta hor du gabeziarik haundiena. Hemengo meategiak itxita daudenez, bildumazaleei erosi beharra dago.



Javier eta Mari Jose, emaztea, beraien mineral eta fosilen biltegia.

## Aita zena eta zu izan zineten Kultur Etxean mineral eta fosilen museo jartzea proposatu zenutenak...

Garai hartan ez genuen biltegirik eta dena paketetan gordeta genuen. Kultur Etxea egiten ari zirenean, aitari gordeta zegoen bilduma bertan erakustea proposatu nion eta udaletxean proposatu zuen. Baiezkoa eman zioten eta honela natur zientzien inguruko museo txiki hau zabaldu zen. Honi esker, bilduma zaletuen zerbitzura dago eta ikasleentzat lagungarria izan daiteke. Bestalde, museoak egoteak bilduma osatzeko motibazioa bultzatzen du. Izan ere, museoak egunerotu beharra dago lehenago ere bisitatu dutenek itzultzeko arrazoirik izan dezaten eta ezagutzen ez dutenak etor daitezten.

## Mineralogi eta Astea helburu honekin jaioko zen...

Hala da, bai. Bisitariak erakartzeko urtean zehar zenbait ekintza antolatzea pentsatu genuen udaleko arduradunek eta familikook.





Azokara etorri nahi duten guztiak gonbidatu ezkeru hiru pilotaleku beteko lirateke.

Azkenean, urtean zehar ekitaldi txiki ugari antolatu beharrean, gaiaren inguruko kultur aste bat antolatzea erabaki genuen eta hala jaio zen. Ederrena pilotalekuan hasi ginen Urretxura ekarri genituen zenbait lagun bildumazalerekin eta lehen urteetan salerosketa eta trukaketa bera baino garrantzitsuagoa zaletuen artean bizi zen giro ona izan zen. Giro honek bizirik dirau, baina salerosketa eta trukaketa oso garrantzitsuak bihurtu dira. Egun herrialde askotako jendea etortzen da eta azokara etortzeko eskaera egiten duten guztiak gonbidatuko bagenitu, hiru pilotaleku beteko genituzke. Bestalde, azken urteotan gainontzeko ekitaldiek (hitzaldiek, txangoak, haurrentzako parkeak...) garrantzi handia hartu dute eta egun pilotalekuko feria kenduko bagenu ere, asteak biziraungo luke.

### **Zeintzuk dira aurtengo astearen berrikuntzak eta egitarauan zer azpimarratuko zenuke?**

Helburua jendeari erakargarriak egingo zaizkion ekintzak antolatzea denez, iradokizunei erantzuna ematen saiatzen gara. Iaz irakasle bat bi umerekin etorri zen hitzaldi batera eta ea haurrentzako hitzaldiak zergatik ez genituen antolatzen esan zigun. Hitzaldietara azkenean adituak soilik joaten direla kontuan harturik, ideia ona zela iruditu zitzaigun eta aurtan Ernesto Santidrian gasteiztarrak ikasleei eskoletan ikusentzunekoez lagundurik hitzaldi bat eskaini die. Aurtengo egitarauko azpimarragarriena, berriz, Eugiko meategiko magnesiten erakusketa da. Izan ere, erakusketa honetan duela gutxi arte sailka-

tu gabe zeuden bi magnesita ale dira ikusgai: bariosinkosita eta minyulita. Azken hau irakasle suitzar batek Australian topatu eta nafarrek baino pixka bat lehenago sailkatu zuen, bestela eugita izena izango luke. Bestalde, oraindik lortu ez dugun arren, datozen urteetarako asmoa Atapuercako aztarnategian lan egiten duen Arsuaga hitzaldi bat ematera ekartzea eta ondoren bertara txangoa egitea da.

## **“Duela gutxi sailkatu ziren bi mineral izango dira ikusgai Mineral Astean”**

### **Mineralen mundua herrian herrian ezagutarazteko lan egiteaz gain, zure ogibidea ere baduzu...**

Aitak bildumazaletasuna zein gustura bizi zuen ikusita, ni ere zaletu egin nintzen. 84an zuzenbide ikasketak utzi eta zaletasuna ogibide bilakatzea erabaki nuen. Erabaki arriskutsua izan zen, baina aurrera egitea lortu nuen. Bildumazaleei salmentak eginez ez dago bizitza aurrera ateratzerik, beraz mineral eta fosilak apaingarri bezala erabili ditzaketen erosleak bilatzeari ekin nion: oparidendak, bezero eta langileei opariak egiten dizkieten enpresak, mineral bildumak faszikuluka saltzen dituzten argitaletxeak... Apaingarri

bezala erabili behar direnak diseinatu eta moldatu ere egiten ditugu. Batek baino gehiago galdetu dit ea harriak saltzea ogibide izan daitekeen eta niri hau ulergaitza izatea komeni zaidala erantzuten diet: jende gehiagok honetatik bizi daitekeela usteko balu, konpetentzia haundiagoa izango bainuke (barreak). Ez, beste lanbideetan adina konpetentzia dago, baina honetatik bizitzen hasia zaila da, mineralen ezagutza zabala behar baita. Nik neure kabuz eta zenbait ikastaro eginda ikasi dut, baina emazteak gemologia ikasi berri du eta egun nik baino gehiago dakiela onartu beharra dut.

### **Bildumazaleei ere saltzen al diezue?**

Bai, baina gure salmenten ehuneko hamabosta soilik suposatzen dute hauek. Bildumazaleei ale bereziak eta balio berezikoak saltzen dizkiegu, urrutetik ekarriak. Hemengoak bertan lor ditzakete, baina urrunekoak lortzeko bertara joan beharko lirateke eta oso garesti aterako litzaieke. Guk mineralak meategietan lote haundietan erosten ditugunez, beraiek alea baino askoz merkeago erosi ditzakegu eta bidaia errentagarria zaigu. Dena den, bildumazale asko oporretan meategiak dauden tokietara joaten dira mineralak erosteko. Bildumazaleok oso jende berezia gara, bildumako aleren bat lortzeko sekulako ahalegina egiteko gai gara eta trukaketan aritzen oso ohituak gaudenez hau oso gustukoa dugu. Azkenaldi honetan, adibidez, bildumazale batzuegandik argazki kamera digital bat eta furgonetan bertan lo egiteko prestatzea lortu dut mineral batzuen truke.



# UGAren disko berria

UGA izenaz ezagutzera eman den Estitxu Sudupe urretxuarrak bere bigarren diskoa kaleratu du urriaren 20an. 10 abestiz osatua dagoen disko berria abuztuaren grabatu zuten Gasteizko "El canton de la soledad" estudioetan eta aurrekoa bezala Carl Watermarken Run Down Music diskoetxeak ekoiztu du. Disko berriak lehenengoaren ildo jarraitzen du, baina dance musikan urte batetik bestera gauzak asko aldatzen direnez, egun mundu mailan arrakasta duten soinetan oinarritua dago. Abestien musika mundu honetan urte asko daramatzan Carl Watermarken sortu du eta diskoa osatzen duten hamar kantuetako bederatziren hitzak Estitxuk berak idatzi ditu. Kanta gehienak amodioaz mintzo diren arren, bat haurrei zuzendua dago eta "Labanak" izenekoa bere anaiaren koadrilakoei eskaini die Estitxuk.

Aurreko diskoan Estitxuk abesti gutxi batzuetako hitzak soilik idatzi zituen eta lan hau egiten zuen lehen aldia zenez, jendeari gustatuko ote zitzaion beldur zen. Oraingoan, berriz, askoz ere erosoago aritu

omen da, "oraingo honetan errazago osatu ditut abestietako hitzak eta horretarako inguruko jendeari gertatutakoetan, beste abesti batzuetan, filmetan... oinarritu naiz".

Lehenengo diskoaren grabaketak eta azken urte honetan lortutako esperientziak beraz izan dute eraginik bigarrenean, "niri kaleratu berri dugun diskoa lehenengo baino gehiago gustatzen zait, baina lehenengoaren arrakasta izan da bigarrena grabatzera bultzatu gaituena. Gainera, lehenengo kaleratu genuenean UGA talde berria zen eta ezagutzera eman ginenerako kontzertuetarako kontratu gehienak sinatuak zeudenez, uda, disko berria grabatzeko aprobetxatzea erabaki genuen".

Bigarren diskoaren ostean kontzertu gehiago eskaintzea espero du Estitxuk: "udaletako arduradunei gure eskaintza gustatu zitzaion, baina ordurako udako kontzertuetako kontratuak sinatuak zizutenez kontzertu gutxi eskaini ditugu. Dena den, datorren urtean kontratatzeko asmoa erakutsi zuten. Kontzertu gehiegi

eskaini ez ditugun arren, komunikabideetan azaltzeak taldea ezagutzera ematen lagundu digu. Sorginen Laratzen, Goenkalen, KTM saioan... izan ginen eta irratietan ere askotan jarri dituzte gure abestiak. Klaudio Landa, adibidez, oso ondo portatu da gurekin eta Sorginen Laratzen izan ginenean eskerrak eman nizkion. Oraingoan ere disko berriaren aurkezpen kanta den "Hau da gaua" sarritan jarri du Euskadi Gaztea irratiko bere saioan".

Komunikabideetan hainbestetan agertzeak Estitxu ezagun xamar bihurtu du, baina ez du uste ospea hainbesterako denik "noizean behin haurren batek edo gazteren batek kalean edo tabernetan nagoela ezagutzen nau, baina ez da itogarria. Nire burua hasberrizat dut oraindik eta ikasteko asko dut. Nire asmoa momentuko egoera aprobetxatzea da eta taldeak arrakasta duen bitartean jarraitzeko asmoa dut. Urtetako karrera egin badezaket, ba aurrera, eta bestela ere ez da ezer gertatzen."



**Ainhoa**, hori da hori ama-sena duzuna! **Zorionak** eta segi ezazu horren arduratsu.



**Zorionak Amaia**, txistua joz esnatzen gaituen txistulari alaia! (Ahal baduzue pixka bat beranduago esna gaitzazue).

Oraingoan bai, oraingoan benetako ekintza heavya egin duk motel! Emaztea telebistan beti futbola jartzen duzulako hasarrazten zaizunean eta seme-alabek dirua xahutzen dizutenean ez damutzea espero dugu!  
**Zorionak Ainhoa eta Jebi!**



**Amaia**, aurki izeba izango zara eta zu ere zerbaitetan pentsatzen hasi beharko zara!  
**Zorionak!**



**Amaia**, hori da hori irrifarre lotsatia! Begiratu iezaiozu kamerari beldurrik gabe neska! **Zorionak!**



**Armando**, azken urtea ere "armando jaleo" pasa al duzu? Zirikatzaile eta adarjole paregabea egina zaude!




**Begoña**, zu bai emakume moñoña! **Zorionak** eta segi horren irrifartsu urte askotan!



**Haritz**, ikasturtea gogor hasi da ala? Alaitu ezazu pittin bat aurpegia motel! **Zorionak** eta ondo pasa.



**Beñat**, zer gertatzen zaizu horren triste egoteko? Ea urtebetetze opariak pixka bat alaitzen zaituen.



**Edorta**, zure irrifarra ikusita badi-rudi urtebete zahar-ragoa izatea ez zaizula gehiegi axola. **Zorionak!**



**Begoña**, ez izagazu horrela begiratu neska, oraindik ez gara zurekin sartu eta! **Zorionak** eta ondo ibili.



Hainbeste urte elkarrekin emateak badu, bai, meritua. Ea beste horrenbeste betetzen dituzuen eta orduan ere zoriontzeko aukera dugun!  
**Zorionak Candido eta Tere** eta ondo ibili!



**Enrique**, ez duzu ez pikaro aurpegi makala! Oraingoan ere bihurrikeriaren bat prestatzen ariko zara!  
**Zorionak!**



**Esteban**, parrandazaleek sekula nahikoa eskertuko al dizute beraien etxerako buelta alaitzeko egiten duzuen lana?



**Evaristo**, no te pases de listo! **Zorionak** eta segi ezazu horren irrifartsu!



**Irati**, hori da hori irrifarra! Datorren urtean ere horren irrifartsu ikus zaitzazula! **Zorionak** eta ondo pasa!



**Joaquin**, dotorezia eta pose horrekin Rodolfo Valentino dirudik. **Zorionak** eta segi ezak horren elegante!



**Maria Jesus**, urtero bezala pixka bat alaitu zaitzen Maria Jesus bihotzekua... kantatuko dizugu. **Zorionak!**

Zuek proposatu al zenieten amari David ipotxa fitxatzea? Gizaoari ez zenieten gizarte segurantzian alta eman eta orain jubilaziorik gabe gelditu da!  
**Zorionak Mentxu eta Jone!**



**Mari Carmen**, kinkiladendan lanean hasi zinetik Doña Rogelia sekula baino sexiago ageri zaigu!



**Marta**, dagoeneko piztu al da zure bihotzean amodioaren txinparta? **Zorionak** eta ez kazu haundiegirik egin honelako ergelkeriei.



**Migel**, hik ere santuak bezain gustuko al duk garagar-doa? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Migel Angel**, harrapatu haugu! Hi haiz gizonezko biluzien eskulturak egiten ibili haizena! Lizun hori... **Zorionak!**




**Mikel**, urtero gorbata lepoan duala azaltzen haiz. Belarrian mugikorra bakarrik falta zaik ejetutiboa izateko!



**Nora**, mutilari horrelako oihuak eginda ez zoaz inora! Mikeli horren gaztetatik jada errietan egiten hasten bazara, azkar nazkatuko duzu! A zer nolako etsipen aurpegia duen gizarajoak...  
**Zorionak Mikel eta Nora!**



**Naiara**, hori da hori lazoa jarri dizutena! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Pablo**, ez al zara zahar xamarra oraindik behatza txupatzen aritzeko? **Zorionak** eta ondo ibili!



**Ros**, argazkia atera zizuten garaian laburtuko zizuten izena guatekeren batean... Ia izenik gabe utzi gelditu zinen!



**Rosi**, urtebetetze egunerako ez al dizute oparirik erosi? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Saul**, zorionak eta segi argazkietan ateratzeko horren "interesante" paratzen.



**Alain**, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi ezazu horren alain. **Zorionak!**



**Iñaki**, 18 urte bete dituk, ez al duk gidatzeko baimena atera behar? Anaia hiri kotxea uzteko desiatzen zegok!  
**Zorionak!**

**CHIARA**  
Etxerako lantzeria  
Oparitarako gaiak  
Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18  
Madaia plazoletan  
20700 URRETXU

**TABERNA**  
*Jaureratu*  
JATETXEA  
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belar zain*  
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Labeaga 31 ☎ 943722780  
URRETXU

*foto luz*  
*Argazkilariak*  
Legazpi, 5 ☎ 72 11 55  
Zumarraga  
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81  
Urretxu  
Kale nagusia, 5 ☎ 73 04 19  
Legazpi  
\* ZURE ESTUDIOA \*

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU  
  
**OSINALDE**  
KRUASANDEGIA  
TABERNA  
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06  
ZUMARRAGA

# www.ostadar.org

## Ostadarrek euskarazko web-gune osatuenetakoa du


Ostadar mendi taldea Oargiko eta beste zenbait taldetako mendizaleek sortu zuten 1982an bi herriotan mendizaletasuna suspertzeko asmoz. 18 urte hauetan hasierako 40 bazkideetatik 175 izatera pasa dira eta bi herrietako mendizaleei makina bat ekintza eskaini dizkiete: hilean behin Euskal Herrian zehar mendi irteerak, diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, hilabete honetan hamazazpigarrenez ospatuko den mendi astea... Bestalde, Ostadarrek bere egoitzan liburu eta mapaz hornitutako liburategia eta mendira joateko tresneria ere badu bere bazkideen esku.

Honetaz guztiaz gain, Ostadarrekoek urriaren 9an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean aurkeztu zuten web-gune aberatsa ere badute. Koldo Mitxelena Kulturguneakoak euskarazko web-gune osatuena ezagutzera emateko asmoz (Egunkariarena, Argiarena, argitaletxe ezberdinena...) aurkezpenak antolatzen ari dira eta Ostadarrekoei ere gonbitea luzatu izana esanguratsua da benetan. Aurkezpen egunean, goizean prentsaurrekoa eskaini zuten Ostadarrekoek eta arratsaldean jendeari web-gunearen ezaugarrien berri eman zieten.

## Urriaren 9an Donostiako Koldo Mitxelenan aurkeztu zuten web-gunea

Dena den, aurkezpen ofiziala aurrean egin bada ere, bi urte pasatxo dira jada sarean dela eta web-gunearen hastapena bilatzeko 1993. urte ingurura jo behar da. Urte horretan Luis Miguel Gonzalezek taldeko zuzendaritza hartu zuen eta mendi irteerak dokumentatzea bururatu zitzaion. Horretarako DIN-A3 tamainako orri batean irteerari buruzko testua idazten zen, gaztelaraz zein euskaraz, eta argazki bate-

Makina bat ibilaldi egin dituzte Ostadarrekoek urte hauetan guztietan.



kin zein ibilbidearen maparekin hornitzen zen. Orri hau irteera aurretik mendizaleei banatzen zitzairen eta oraindik ere hala egiten dute Ostadarrekoek. Honi esker mendizaleek badakite nora doazen eta zein ibilbide egin behar duten, zuzendaritza taldekoak baino azkarrago joan daitezke presa badute eta beste egun batean ibilbidea errepikatzeke aukera eskaintzen die.

Ekimen hau martxan jarri eta hilabete batzuetara Jonmikel Intsausti informatikaria taldean sartu zen eta dokumentazio hau ordenadorez lantzen hasi zen. Duela hiru urte Jonmikeli disketetan bildutako guztiarekin web-gune bat sortzea bururatu zitzaion eta lanari ekin zion buru-belarri. Dokumentazio lana egiteko

mendi taldeko kideen laguntza izan zuen eta berak informatika arloa jorratu zuen: word fitxategiak html formatura pasatu zituen, informazioa antolatu zuen, argazki ugari eskaneatu zituen eta orriaren diseinua landu zuen. Labur-labur esaten den guztiak hilabetetan zehar sekulako lana eman zion Jonmikeli eta berak ere ez daki zenbat ordu sartuko zituen web-gunea egiten.

Horren gogotsu eginiko lanaren emaitza mendizale ororentzat oso interesgarria den eta informazio zabala eskaintzen duen [www.ostadar.org](http://www.ostadar.org) web-gunea da. Orriaren muina Ostadarrek azken urte hauetan egindako irteeren eta beste hainbat mendiren inguruko informazio zehatzak osatzen dute. Baina honetaz gain, beste

hainbat gauza ere aurki ditzakegu: eguneratzen saiatzen diren aterpeen zerranda, mendizaleei euren zalantzak argitzeko posta elektronikoz zerbitzua, urtero antolatzen duten mendi astearen zein Iñaki Beitiaren omenezko martxaren informazioa, taldearen historia... Honetaz gain eguraldiaren berri zein mendizaleentzat interesgarriak diren beste hainbat informazio eskaintzen duten beste web-gune batzuen helbideak ere aurki daitezke Ostadarren web-gunean.

Baina, aipatu bezala, gunearen oinarria mendiei buruzko informazioa da. Ostadarrekoek eurek zein beste mendi talde batzuek Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo egindako 110 irteerei buruzko informazioa bildu dute web-gunean mapa, argazki eta bestelakoez lagundurik. Hauen artean egun batean egiteko irteerak daude eta beste batzuk, berriz, zenbait egunetan egitekoak dira. Azkeneko hauen artean Uren Banalerroaren ibilbide handia eta

Patxi Arriaga elgoibartarrak egindako mapekin osatutako 4 eta 5 hiriburuen ibilbide handiak aurki ditzakegu (Xebe Peñak 43an egindako 4 Katedralen ibilbide handian oinarrituak).

Jonmikel Intsausti oso gustura dago egindako lanaz eta astero 30 lagun inguruk bisitatzen omen dute web-gunea. Baina halakoekin ez dago sekula osaturik daudela esaterik eta lanik handiena egina dagoen arren, gunea eguneratzeaz eta hobetzeaz ere arduratzen dira mendizaleei ahalik eta informazio zehatz eta osoa emateko asmoz. Ostadarrekoek pixkanaka mapa eta argazki gehiago, GPS informazioa, errepide sarearen informazioa... eskaintzeko asmoa dute, baina oraingoz Jonmikel WAP ereduia prestatzen dabil buru-belarri. Honi esker, telefono mugikorretan Ostadarren web-guneko informazioa jaso ahal izango da. Honek mendian gaude-la aterpetxe bateko telefonoa lortu eta bertara deitzeko balio diezaguke, esaterako.

## XVII. MENDI ASTEAREN EGITARAUA

### Igandea, azaroak 19

XIII. ANJEL ETXEBERRIaren omenezko Haur Ibilaldi  
Neurtua - Irimo-Zazpi Puntak

### Diapositiba emanaldiak:

#### Astlehena, azaroak 20

EUSKAL HERRIKO MENDIAK...  
—Juan Mari Gabilondo (Txibis)—

#### Asteartea, azaroak 21

HIRU PAUSO, HIRU NORABIDE  
—Josu Iztueta (Nairobiarra Kultur Taldea)—

#### Asteazkena, azaroak 22

IZARREN BIDEA. Santiago bideak Gipuzkoan barrena  
—Txaro Polo—

#### Osteguna, azaroak 23

SHIPTON SPIRE  
—Txerra Eskibel—

#### Ostirala, azaroak 24

DANUBIOA ZEHARKATUZ  
—Angel Cuerdo Galarraga—

#### Larunbata, azaroak 25

BATZAR NAGUSI OROKORRA

#### Igandea, azaroak 26

IBILALDIA (Araba: Lana bailara. Kontrasta - Arnaba (1.256 m) - Larraineta (1.115 m) - Corrales de Boloria - Boloria).

\*OHARRA: Proiekzio guztiak DOANEKOAK izango dira.

## MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6  
☎ 72 52 22  
ZUMARRAGA



GUREA

Iurgintza



Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU



## Nagore Asurabarrena

Ikastolan oinarrizko heziketa ikasi ondoren, Nagorek haurtzaintza, geriatría eta klinika laguntzaile ikastaroak egin zituen. Alor horietan lanean ibilia da, orain Pagoeta Haurtzaindegia denan, Zumarragako geriatrikoan eta ospitalean. Azken honetan, hain zuzen ere, bere bizitzako gertakizunik hunkigarriena bezala gogoratzen duena bizi zuen: medikuei erditzea ikusi nahi zuela esan zien eta haurra jaio zenean emozioz negarrez hasi omen zen.

Duela hiru urte hilabete batzutarako Londresera joatea joatea erabaki zuen eta bertan hiru hilabete eman zituen hoteletan lan egiten.

Badira ia bi urte Nagore The Intrepid Fox tabernan lanean ari dela, taberna zabaldu zenetik, eta bertan jarraitzeko asmoa du. Izan ere, lantegi pare batean lanean ere hasi zen, baina bi alditan egun gutxitara utzi egin zuen. Goizean-goiz jaiki eta bertan sartua egotea ezin omen du jasan.

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez nuen horretan pentsatzen.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lo egitea, txakurrarekin paseatzea eta zinera joatea. Ahal dudanean (oso gutxitan) parranda egitea ere bai.

### -Bizitzeko toki bat?

Edozein herri txiki.

### -Zein da eskatu dizuten edaririk bitxiena?

Edari bitxi asko eskatzen dituzte. Behin txanpan, Coca-Cola eta kiwiaz osatutako "matxakaua" eskatu zidaten eta izena ere bazuen. Beraiek jarria izango zen...

### -Zeintzuk dira tabernaria izatearen alde on eta txarrak?

Alde ona, ez dudala lantegi batean lanik egin behar. Izan ere, denbora librea dudanean ere tabernatan egoten naizenez, ez da lan egiteko leku txarra.

Alde txarra, zenbait jende jasan beharra da.

### -Zer nahiago duzu, taberna zabaltzea ala ixtea?

Zabaltzea nahiago dut, bestela gauean etxera beranduegi joaten naiz eta lo gehiegi egiten dut.

### -Nola egiten diezu aurre jasangaitz jartzen diren mozkorrei?

Irrifarre eginez eta lanean jarraituz.

### -Zein da lan egiteko gehien atsegin duzun jai eguna?

Gabon gauean gustura lan egingo nuke.

### -Nongo festak dituzu gustukoak?

Festa guztiak atsegin ditut Donostiakoak ezik.

### -Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki.

### -Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Nere lagun Teresa eta Mirarirekin, aspaldian ez gara elkarrekin egon eta.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Berdin zait.

### -Egindako azken oparia?

Katu bat.

### -Eta jasotakoa?

Camelaren CDa.

### -Data bat?

Aste hau, jai izan baitut.

### -Mutil izen bat?

Asier.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Egunkari guztietako gurutzegramak egiten saiatzen naiz, baina irakurri Gara bakarrik.

### -Gustuko telebista saioa?

Goenkale.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Gainontzeko telesail guztiak.

### -Liburu bat.

Capitanes de la arena.

### -Filme bat.

El bar Coyote.

### -Gustuko abestia?

Sobrevivire.

### -Soinu bat.

Ez zait bat bereziki atsegina egiten.

### -Usain bat.

Asko.

### -Ukitzeko...

Leuna den edozer.

### -Janari bat.

Patata duen edozein, baina beste asko ere bai.

### -Ura ala...

Cacique kubata.

# AZAROKO AGENDA

## JAIK

### -San Martin jaiak Agiñan

Azaroak 10, ostirala:

20:00: Festen hasiera kanpai-hotsak lagunduta eta txikiteoa.  
21:00: Buzkanta eta ardi gisaua nahi duten guztientzat.  
Ondoren: Erromeria goiz aldera arte Olarte anaiekin.

Azaroak 11, larunbata (San Martin eguna):

12:00: Herri meza auzoan hildakoen alde.  
13:00: Txikiteo herrikoia bertako jubilatuentzat.  
14:00: Bazkaria nahi duten guztientzat bertako elkartean.  
20:30: Buzkanta eta ardi gisaua nahi duten guztientzat.  
10:30: Trikitilari gazteen txapelketa.

### -San Martin eguna Urretxun

11etatik 2etara:

Haurrentzako jolasak Gernikako Arbola plazan.  
Buzkanta dastaketa, trikitilariak eta Musika Tailerrekoak alaiturik.

19:30etatik 21etara:

Buzkanta dastaketa, trikitilariak eta Musika Tailerrekoak alaiturik. Txerritxo bat zozketatuko da.

## SARI BANAKETAK

### -Narratiba eta poesiako Iparragirre sarien banaketa

Azaroaren 24an, arratsaldeko 7:30etan Urretxuko Udaletxeko aretoan.

## ERAKUSKETAK

### -Gipuzkoako paisajeak: barrualdea

Javier Fernandez argazki erakusketa.  
Azaroaren 10etik 19ra bitartean Itarte Etxean.

### -Bidaia nire erraietara: Nepal

Jose Ramon Agirrerren argazki erakusketa.  
Azaroaren 24tik abenduaren 3ra bitartean Itarte Etxean.

## MUSIKA

### -Santa Zeziliaren inguruko musika emanaldia:

Azaroak 22, asteazkena:

17:00: txistulari bandaren kalejira.

Azaroak 23, osteguna:

17:00: S. E. Musika Eskolako ikasleen kalejira.

19:30: Musika Eskolakoen kontzertua Legazpi Dorretxean.

Azaroak 24, ostirala:

22:00: Kontzertua Ederrena pilotalekuan.

Azaroak 25, larunbata:

13:00: Zumarragako Musika Bandaren pasakallea.

17:00: Jubilatuen Goizalde koruaren kontzertua.

Azaroak 26, igandea:

19:30: Josetxo Goyaren kontzertua La Salleko aretoan.

Oharra: buzkanta lehiaketa, Udazkeneko Zikloa, Mineralogi eta Paleontogi Astea eta Ostadarren mendi asteari buruzko informazioa aldizkari barrualdean.

# ZELETA BARAZKIAK

## NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA


- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena



ZELETA BASERRIA  
San Migel auzoa ELGOIBAR



**SUKALDE  
ERAKUSKETA**



**Udala enparantza, z/g.**

☎ 943 79 00 43

**20500 ARRASATE**

**Ipeñarrieta, 5**

☎ 943 72 50 75

**20700 URRET XU**